

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Mertxe Almortza Goñi

*Urnieta,
Gipuzkoa
(1919-2017)*

Aurkibidea



Biografia



Eibarren jaio eta berehala Urnietara ekarri bazuten ere, urnietar baino gehiago sentitu izan du bere burua eibartar. Bizitza gogorra izan zuen Urnietan. Alaba bakarra. Gerrako kontuez ederki gogoratzen da, familian bertan bizitu baitzuen jazarpena. Senarra eta aitaginarreba harakinak zituen, eta aita ere bai. Bost urte zituenerako, etxeko txerriak hartuta Hernanira egiten zituen joan-etorriak gogoan ditu. Hamaika urte zituenean, bere izebak erabakita Madrilera bidali zuten bakar-bakarrik, hango beste izeba batek zerbait erakutsiko ote zion pentsatuta. Baina ez zen nahi ordurako etorri. Gutxi iraun zuen han eta hona etorri eta urte batzuetara gerrak une zailak pasarazi zizkion. Senarra kartzelaratu, aitaginarreba eta koinatua fusilatuak, jarraituak... Hamabost urterekin Andoaingo Muñagorrirenan pasatu zuen hilabete etxetik kanpora. Urnietan bizi izan da beti.

Zintak

URN-019

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Data:** 2010-01-29
- **Iraupena:** 83 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Umetatik zaildutakoa

- **Erref:** URN-019/007
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:15:43. **Bukatu:** 00:18:03

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Etxean gogorrena izaba zen. 4 urte zituela, Hernanira bidali zuten Mertxe amonarekin ferian txerrikumea saltzera. 16-17 urte zituela, Donostiara astoa eta esnea hartuta joan izan zen hainbat hilabetetan. Eskolatik ateratzen zenean, mandatuak egin behar izaten zituen.

2. Madrila hezkuntza ona jasotzera

- **Erref:** URN-019/009
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:18:44. **Bukatu:** 00:21:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

<p>Umetatik bihurria izan omen da Mertxe; orduko gaiztakeriak kontatzen ditu: idiak mozkortzen zituen, zezenak askatu... 11 urte bete zituenean, Madrila bidali zuten hezkuntza ona jaso zezan eta bederatzi hilabete eman zituen han. Madrila trenez joan zen, oso atsekabetuta.</p>

Transkripzioa

- Baiño ni oso ttikitatikan gaiñea gaxtua izandu naiz. Osobak zatua-ardua ekartzen zunia eta belar pillara botatzen zun goitikan, ganbaratikan botatzen zun belarra, lehorra zulo batera, han gordetzen zun freskua egoteko ardua, hartu hua ukuillu-atxurrakin, atera handikan eta idiri eman. Mozkortuta, geo laneako gauza ez diela.

- Ai ama!

- Ez, aberik haundi xamarrek eiñak dittut nik. Nee bengantza amonak zigorrakin ematen zianian, nee bengantza izaten zan zezenetaa jun eta zezenak askatu.

- Ze bitxua!

- Bitxua? Desde luego. Geo ezin bilduik haik etxea. Bueno, hamaika urte. "El día que cumplí los once años me fui a Madrid".

- A bai? Madrillea.

- Bai. Beatzi hillabete pasa nittun han. Hillero-hillero jutun zitzan osoba. Estuve muy bien, e. Por mediación del tio fui allá para que, enfin, para que no sería tan burra en el caserío. Para poder aprender la educación". Bai, bai. "Me escapé allá". Neskamiakin jun arrandeira ta. "Me escapé, me fui hasta El Retiro, y no conocía Madrid para nada".

- Zeinek bidali zintuen?

- Izebak. Izebak eta osobak.

- Eta aita eta ama zer esan zuten?

- Attak ez zun nahi baiño. Hainbeste enpeñatu zan osoba. "E, Xegundo, hola ez zioz umia hola aztarrika jarri hemen eta. Ez ez, hobia dek

edukaziyua ikasten baldin badu eta eskola. Ez dik buru txarra. Talentua badik eta ikastia dula. Ta ikasten baldin badu berantzako izango dek".

- Eta hemen ez al zendun ba ikasiko?
- Baiño hua ordia osoba haundiya baizan.
- Hamaika urtekin bederatzi hilabeterako Madrillea jun ziñen.
- Bederatzi hillabete. "Fui para una temporada. Pero lo que pasa que pasé nueve meses". Ez nahi orduko etxea etorri.
- Nola joan ziñan harea?
- Trenian.
- Emango zizuen zorron bat edo. Ezta batere?
- Ez, ez nun jan haundiik biharrikan.
- Jale txarra ziñala esan dezu.
- Txarra nitzan alde batetikan eta geo bestetikan "el disgusto que llevaba para marcharme fuera de casa". Sekula, atera bai, Donostin izaten nitzen izebakin eta, baiño beste gaiñentzian hola kanpoa behintzat atera ez, eta ba al dakizu zer zan? Nik atta oso maittia nun, e.

3. "Gerra gogorra ez, gogorregia"

- **Erref:** URN-019/014
- **Iraupena:** 0:04:16. **Hasi:** 00:36:16. **Bukatu:** 00:40:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Gerra garaian bi hilabete eman zituen ezkutatzan, gauero kotxe blindatu batean etortzen baitziren bere bila. Azkenean, Andoaina eraman zuten izeba-osabek. Hainbat gizon fusilatu zituztela ikusi zuen Mertxek.

4. Zenbait sendabelarren erabilera

- **Erref:** URN-019/021
- **Iraupena:** 0:04:36. **Hasi:** 01:06:31. **Bukatu:** 01:11:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:

<p>Sendabelarrak aipatzen ditu: pasmo-belarrak ganbaran jasotzen zituzten eguzkiak joko ez zien lekuan; zertarako erabiltzen zituzten aipatzen du. Ilarrondokoari eta sarnari buruz hitz egiten du.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com